## SECCION AMENA

# ZERRIYA MOSKORTUTA

(NERE ADISKIDE ON PEDRO MAKI OTAÑO, EUSKAL-IZKRIBATZALLE ARGIYARI)

Askatik igas egiñ
zuben beiñ zerriyak,
arki zitubelako
ate irikiyak;
segiduan asi zan
bazterrak miratzen,
aukeran zuben gauza
guztiya zupatzen;
berak ziyon:—Au ganga
datorkit gaur neri,
gaur bai jarko naizela
tripaz *guri-guri.*
Zoko batian oidu
ikusten arbiya,
osto charrak kendu ta
biziro garbiya;
bestian sagar pilla,
arto aletua,
ta gaztaña oparo
ondo legortua,
denak jaten batian
nola ari zan an
ainbeste gauzak ziyon
egarriya eman
eta segiran joan zan
eran nairik ura,
tolarien azpiyan
zegoen tiñakura;
arki zuben betia
sagardo ta ligez
ta asi zan zupatzen
zurrunga egiñez;
ain gogoz ziyon bada
berari ekiten
etzuben uste gaitzik
ziyola egiten;
zupa ta zupa dena
zuben azkar ustu,
eta tripa zagiyen
modura puztutu;

sosegatu eziñik
asi zan balantzan,
bazirudiyen artza
zebillela dantzan;
erori zan amilka
kolpez bazterrera
chito pilla zegoen ta
guztiyen gañera,
eta aiñ indarrian
zituben zanpatu
¡gasuak bertan ziran
denak chirchillatu!
. . . . . . . . . .
. . . . . . . . .

Erariya ona da
osasunarentzat,
neurriz eran ezkero
mundu guztiyentzat,
bañan moskortzen bada
ark egiten du gaitz,
eta deskalabruak
ekartzen ditu maiz.

JOSÉ ARTOLA.

# ANÉCDOTA

## Experimento de actualidad

Un americano, queriendo saber á qué profesión debería dedicar á su hijo, le encerró en un cuarto en que de antemano habia puesto sobre una mesa una Biblia, una manzana y un billete de Banco con el propósito de que si al entrar le encontraba leyendo la Biblia, le haria estudiar para ministro protestante; si comiendo la manzana, le dedicaría á la agricultura, y si era el billete el que había preferido, le pondria de dependiente en un Banco.

Cuando volvió, halló al muchacho sentado en la Biblia, devorando la manzana y con el billete en el bolsillo.

Al ver esto el padre, le dedicó á la política.